

Ihizia eta ihiztaria


- ① Nexkatxa gaztia agoi urketan adinez xarmegarria
Zure bihotza gorputz ederrian azkarrik dago jarria
Zoin zaren fina hertxi hertxia zirelarik ezarria
Iduri duzu zeru gainetik aingeru bat etorria
- ② Buenos Airesen pasatu ditut agoi eta zorbeit urte
Ene bihotza ez da mintzatu hunarat etorri arte
Goiz ezti batez primaderian nindagolarian trixte
Izar eder bat ikusi nuhen geroztik hura dut maite
- ③ Zure solasak xuriak dira gaixo donado zaharra
Zure saretan ene biltzeko etzira aski azkarra
Izana gatik nasai bildua urrea eta zilarra
Zure distirak ez du argitzen ene zeruko izarra
- ④ Ihiztaria zu omen zira kurikaria lehena
Ez omen duzu naski egiten soineko zapaten dina
Zure saretan ez da sarturen maite duzun urtxo fina
Urtxo tortoila ez da eginga donadoen egazkina

Aitamek mihatu dute tiheta bat, eta huna zer
atxeman duten.
(Airea buruan dut).

Gorantz, deneri eta ondoko egunak arte!

Jaxkano-ahotik.

Gehigarria



Euskal Kultur
Erakundearen
laguntzaz egindako
gehigarria

- 1 Espainiako gerla nahi dut esplikatu
Huna bertsu berriak kantuz politiki
Zerengatik ari diren gizonak milaka
Jada bi urte huntan bat bertzearen hilka
Jainkoaren lege zuzenaren aurka.
- 2 Bere zuzenean zen gobernamentua
Lehen nagusi zirenek bozetan galdua
Desgostuan zelako hango populua
Frente Popular zuten bozetan sortua
Kintze egiten duenak hartzen zakua.
- 3 Sakatzearen ondotik jin da erreferatu
Frente Popular etzen alferren gustura
Zerendako ez utzi bertze bozetara
Legez ez zezaketen auzirik atera
Deliberatu dute gerla ematera.
- 4 Gauza izigarria mundu huntan gerla
Pobrearen bakantzeko asmatua dela
Aberatsa zokotan gordeka dabila
Erredoblatzen dute beren kapitala
Kintalka fabrikatuz obus eta bala.
- 5 Nun dire emazteak, haur eta zaharrak
Pusketan xehatuak badire bakarrak
Eskapatu direnen oinaze negarrak
Egoitzak suntsituak, galduak senarrak
Horra Frankotiarren egintza ederrak.
- 6 Aleman, Italiano, Marrokano beltzak
Burrero izan dire Espainiarentzat
Horien gobernatzaile Franco odol hotza
Heriotzez suntsitu zombat ume xurxa
Horra nolakoa den fasisten bihotza.
- 7 Mundu guziko fasista denak branka bera
Laister hel egiten dute elgar laguntzera
Gure enganatzeko gezur erraitera
Pobrea errestan dago horientzat hobe da
Merke jin dakioten gauza mahainera.
- 8 Gizon frango bada "travaux forcés" denik
Horiek baino gutiago merezi duenik
Franco behar liteke han sartu lehenik
Segi dezan Hitlerrek eta Mussolinik
Fandangoen emaiteko Larok laugarrenik.
- 9 Jainko jaunak emanak hamar manamendu
Bortzgarrena nola den emazue kondu
Gaixtaginak ifernua desafiatzen du
Ez luke izan behar nihun barkamendu
Gauza bera behar du hark kondenamendu.
- 10 Konfiantza badut munduarendako
Zuzentasuna egin duela nahiko
Erresponsable dela Generala Franco
Españiako gerlan hil direnendako
Sinesten ez duena ez da katoliko.

**Olandeiko
Fifinen eskutik**



Kituen kantua

- 1 Publikatzerara noa kantu hauek kito jende horienak
orai dainokoan gure artean pasatu izan direnak
alperrek dira oro lapurrak eskezaleak gehienak
okasio eta eskandalioa faltatzen ez zaio tenak.
- 2 Kito jende horien bizitza guziz dago xelebrea
Honrados dira aurrian eta edo bertzenaz pobrea
nekatu gabe bizitzekoak dira horien kostunbreak
ezen arratsean usatzen dira gizonak eta andreak.
- 3 Emakumeen kondizioa eskerrak diotenean
etxeko andrea karitate on bat jaun goikoaren izenean
konplimentuak luziak eta esker motzak azkenean
gauza guziak berenak dituzte ñor bixtan ez denean.
- 4 Etxe leihortzat ikus teileri leihora dagon tokira
ilunerako guziz gehienean erretiratzen baitira
entenimenduz egotua naiz ni horieri begira
haserretuta onik ez dute porroskatzen ez badira.
- 5 Beren burua asto xakur dabilta joan etorrian
emakumeak erdi biluziak kasikan larru gorrian
gizonak berriz ere mozteko aitzaki aitzur txar batzu gorrian
seinale on bat uzten baitute pasatzen diren tokian.
- 6 Lizu horietako oihalak eta oilo ebasten atsoak
gure artean lapurkerian dabilta mutil gaixtoak
gizonak berriz ere mendi horietako behorrak eta astoak
gauza errexik senti badute arrautzan pasa eskuak.
- 7 Haragi ustel jateko ere dira pare gabekoak
gehienaz ere zakurrak dira horiek bezalakoak
izanagatik hogeit egunez lurpean egontakoak
ikus aluab jaten dituzte igelak eta apoak.

**Olandeiko
Fifinen eskutik**

1936ko eta 1940ko gerlak. 9 urte gerla

- 1 Mila bederatzi ehun ta berrogeita bost garrenean kantu berriak jartzera noa Euskal Herriko partean Miseria ta negarra zen joan den bederatzi urtean orai gerla hau fini da eta alegeratu gaitean.
- 2 Españian hiru eta Frantzian sei, hola dira bederatzi denbora hoietan aditu dugu zenbat nigar eta antsi gizon batzuek ez zirelako burutikan ongi jantzi hobe ginuen egin balitu otso tzar batek iretsi.
- 3 Aita eta amak semeak hazi gero ereman gerlara handik hiru lau egun buruko balakin hilda lurpera mendiko pizti gaiztoen gisa konparazio batera nahigabe haundia heldu da hortik burasoen bihotzera.
- 4 Sortu giñala beste faltik ez, modu hortan hil beharra oroitutzean begietara etortzen zait negarra kanoi ta obus ta aeroplana alde denetarik garra gerra sumatu zuen etsaia etzan izango alferra
- 5 Aleman hoiek saiatu dira gizon hiltzeko lanean kanoi eta obus eta abionekin beti edo gehienez behin ere ez dire ibili horiek oso bide zuzenean bainan azkenean aspertu dira Berlin galdu dutenean.
- 6 Aleman horiek, gaiztakerian ibili dira nun nahi kontrarioa agertzen zaio gaizki hasten denari Alemanian bada jendea lurperatua ugari horiek Gernikan egin dutena egin diote berari.
- 7 Mineral horren ibili ziran Bilbotikan Baionara Franco zikinak eman zioten nahi duenatarik aukera lau urte eta bi hilabete hortan gutxi gora bera gero erdiak Frantzian utzita trixte joan ziren etxera.
- 8 Aleman hoiek etziran heldu Frantzia aldera asiak Herras y borras jaten zituzten igarrak eta eziak horientzat gutxi izaten ziren sortu ahal ziren klasiak amerikanoa etorri ez balitz hilko ginuzen guziak.
- 9 Aleman horiek egina dute hamaika saio eder mundu guzia beretu nahirik gutxienez mila bider hamalau kaiser izan zen, hogeita hemeretzi Hitler horiek biek ere ez dute izan uste zuten hainbat indar.
- 10 Zenbait gizonen izaten dute espantu eta grandesa begietako argi ona ta inork ikusi nahi eza mundu guzia berendu nahirik aleman ta japonesa baina etzaie ongi atera eginda zuten promesa.
- 11 Zaindari batzuk egin zirelako pixka pixka bat tronpatu soldadu asko egina zuten alemanek preso hartu presonierek bost bat urte ederki dute sofritu orain etxera egin direnak bizi dirade kontentu
- 12 Frantzian sartu ziren orduan Aleman horiek kontentu xanpañarekin eta koñakarekin egiten ziren mozkortu oihi ta irrirtzin ibiltzen ziran, baietz Gibraltarren sartu tenore honetan ez dute izango orduan hainbat espantu.
- 13 Ai gerlak eta zikinkeriak lau gizon direlako hoinbertze amaren seme trixterik bizia laburtutzeko Franco bat eta Hitler bertzea, Mussolini eta Queipo horien arima destinatatu omen da ifernurako.
- 14 Gizon horiek ibili ziran etsaiarekin batean hameka saio egina dute mundu gehienez kaltean horien arima lotua dago deabru tzarren katean Luziferrekin daukate gerra bere etxera joatean.



Arrangoitzeko GARIADORen bertsuak, J. Battit TAPIAren ahotik, Beñat ZAMORAREN laguntzaz






Euskal Kultur
Erakundearen
laguntzaz egindako
gehigarria

Gehigarria

Neskatxak ihesi

- 1 Kanpañatik hirira neskatxak ihesi
Euskal Herritik ere asko badoazi
Partitzean serio milaka goraintzi
Ez dute ez erraiten nola diren bizi.
- 2 Nik erranen dautzuet ikusi dutana
Bordelen hirian neska euskalduna
Bizitza berri bati han dago emana
Mila liberendako egiten du lana.
- 3 Lana hori zer laiken nik ez dut esango
Zeren hirian ta bai holakoa frango
Hamar manamendutaik bat bada akabo
denbora joanago gara trixteago.



Jako
IRUBETAGOIENA-
ren ahotik

Othoi egin zazue
Zeratz diren kasu
Gauzak diren bezala
Nai ditut aipatu.
Artzain bat bere bordan
Baitute garbitu
Etsaiaren indarra,
Han da baliatu.

Mitxel zuen izena,
Daitura Larralde,
Bakarrik bizi zena,
Lagunikan gabe,
Gauaz eta egunaz,
Bethi larrez larre
Jan edan onik gabe
Zabilan dealde.

Gau hartan auzoan zen
Gaztain erre jaten
Trixteak holakorik
Ez zuen pentsatzen;
Ber'ustez deskantsuan
Arthaldere gan zen,
Kriminelak etxean
Harmaturik zeuden.

Mitxel zenaren kantua

Zango puntetan zaizko
Etorri biphilik,
Aizkora eskuetan
Ixil gibeletik;
Hiru kolpez segidan
Buru arraidurik,
Han bertan utzi dute
Bizia kendurik.

Hiltzea ez zen aski
Nahi zuten erre
Lastoz eta petrolez
Entseatu dire;
Ez zuten utzi nahi
Trazarikan ere
Afera ongi zuten
Baliatu balire.

Justizia izan da
Jina Baionatik,
Jandarmeria eta
Jaun mera Herritik
Gibelerat itzuli
Bihotza trixterik
Ez baitute atzeman
Nehor hiltzailerik.

Senperen gertatzeko
Oi krima trixtea,
Sortuz gero zor dugu
Guziek hiltzea;
Bainan ez zauku aizu
Odol ixurtzea
Horrek ekhartzen baitu
Denentzat kaltea.

1936ko Espainiako Gerla

Azken ttipi-ttapan, Espainiako Gerlari buruzko
10 bertsu agertu genituen. Azken lauak falta zi-
ren. Hona hemen:

- 11 Baketiar denaro Alemanak Gerla
Froga Hitleren banda lanjerosa dela
Haren lagun haundia Franco Generala
Lagundua bai gizon bai materiala
Legeen gainetik doa ixuriz odola.
- 12 Kantu hauen emailea da Arrangoitzeko
Ekola gutirekin kurrutzen du frango
Eskolakua banitze kargutan sartzeko
Legeak alda nitzazke pobreen argitzeko
Ez gira kreatuak elgarren hiltzeko.
- 13 Noiz argituren zaio pobrari bixta
Ikusiko duena zertsu den fasista
Mundu enganatzaile faltso hipokrita
Ttikientzat promesak haundiak profita
Dugun kanta goraki biba Errepublika.
- 14 Huna azken bertsu hamalagarrena
kondu errenda dadin iñoranta dena
Noizbait geldi dadien pobreen asesina
otoi gure buruak ez guhaur kondena
Bozetan hauta gizon pobreentzat on dena.

Arrangoitzeko
GARIADORen ber-
tsuak, Olandeiko
Fifinen eskutik




Egundaino halakorik

- 1 Egundaino halakorik ez ahal da nihun gertatu
Herri guzia daukute orain eskandalizatu
Esposatzeko mahain saindurat zirelarikan hurbildu
Apezak ere etzakien zoin behar zen esposatu.
- 2 Apezak zituelarik bi andre han ikusi
Bere baitan egin zuen batto beharko dik utzi
Bietarik batere gabe gelditzea likek merezi
Bainan batto esposaturen diat nahiz zerbait irabazi.
- 3 Mutil haren berriak neska harek jakin eta
Ondotik segitu zaio haurra harturik lasterka
Bihotzeko mina duk bainan inori ezin mendeka
Altxazak burua goiti eta horra nun dukan potreta.
- 4 Hauxe da gertakaria tontuen ernagarria
Beti nindukan erraiten eztzela ezkondu nahia
Utzi duk andre zaharra eta
Orain hartzen duk gazte berria.

Olandeiko
Fifinen eskutik

neurtzen ziren. Dio ere Eskolan, nahiz debekatua zen Euskaraz mintzatzea, (bitxikeria) beti otoitzak Euskaraz erraiten zirela berdin katixima... "Errekrazionetan",



Euskaraz mintzatzea ahalkengarri zen eta "anti-Basque" deitu egur ziri baten atxikitzeaz zigortua. Hala ere, Euskara nagusi zen denbora heietan Senperen; Jan Pierrek dio: «Eskolemaileak eman perpausa edo erranaldi hau "Mon père a acheté 3 porcelets au marché de St Jean Pied de Port", haurretan nehor ez zela, "kapaula", Euskarara itzultzea...». Etsenplu edo adibide xume hortan ikusten da zonbat, gure Herriaren funtsa aldatu den azken 50 urte hauetan... Bistan dena Jan Pierren Olerkigintza Euskararekin osoki lotua dela...

Segituz bere bizian, 32 urtetan, Jan Pierrek, Atxular idazlearen bizia eta pentsamoldea gai gisa harturik, pertsu lan batentzat ukan zuen Euskalzaleen Biltzarrak emanik lehen prima bat Saran... Geroztik, asko olerki argitaratu ditu Senpereko gertakizunenez bai eta ere, berak urbiletik bizi izan dituen (familian, lagunekin erlijione-

an...). Bost pa sei kantu idatzi ditu Brave eta Bessonard kantari bikotea bai "Laminak" herritar taldearentzat... eta duela bost bat urte "Ez da musik" elkarteak bultzaturik agertu du liburu bat: "Nere pertsuxkak", 120 bat olerkiekin. Lekukotasun ezin preziazuzkoa Senpereko mintzairaz bai azken gerla ondotik bere sortherriak ezagutu dituen aldaketa ezin sinetsizkoetaz...

11 pindar begietan, malezia bat edo bi bere hitzetan, Jan Pier, Ixtilarteko etxe aintzinean aurkitzen baduzue, geldi zaizte eta berarekin hasi mintzatzen: jakinen duzue, zuek erranen zinuketena baino milaka gehiago... eta partitzean... erran behar zaion hitz bakarra hau da: "Jan Pier segizazu, otoi, zure ama-hizkuntzaz ixkribatzen..., zeren, ixkribatzeak: bizia etengabeki iraurarazten du...!".



Auxin Zamora
1999 / 04 / 17

Ur haundia

Kosta aldetik, ez da urrun Elizondo,
Harat heldu aintzin, hortxetan da Otsondo,
Jaunaren nahiz, gertatzen da hor zerbeit arraro.

Aire ona da eta bada zonbeit iturri:
Bat jausten da kantari, denetaz deitua: Lapitxuri
Bertze bat berdin Urdazubin beheiti,
Agurrak egin eta Dantxarieneari;
Hor ditugu zoin urus: urak hor kurri.
Nafarroan sortuak, Lapurdirat zauzku jautsi.
Erdaraz "La Nivelle" izena diote ezarri.

Lehen, Senperen ur hori deitzen zuten "Zarika"
Gaur izen hortako landak, ez du urrun karrika.
Uholdetan ibiltzen zaizko arrainak igerika.

Txomin Dufau, Senpertarra zen jaun Hori.
Herrian egon zen auzapez eta notari
Behin erran zautan neri: "Adixkide Panpi,
Gure ur haundi hori, deitzen da: Ur-zuri .
Zoazi Utsalerat, beha zazu hor ongi,
Urak, ez du kolorerik, dugu ikasi.
Hor harrien gainean, ura dago zuri argi;
Utsaletik lekora den kartier edo auzo hori
Deitua izan da arras aspaldi: "Urguri",
Norbeitek gaizki irakurturik, deitzen dugu denek: "Urguri."

Urguri, Ibarrun, Helbarrun, sei zubiren jabe:
"Utsalea, Zaldubia, Haroztegia biga badire,
Zumabia eta Martikoenekoa tente
Hortik lekora, ur hori: "Ur-Hertsi" erraiten diote.

Zarika, Ur-Zuri, Ur-Hertsi, zoaz itsasorat.
Donibanen Urdazuriri eginez agur haundi bat.

1998 Uztaila Jan Pier Soudre (LARREKO)
(Olerki hau Hatsa elkarteari igorria, gaur Ttipi Ttapan
lehen aldikotz argitaratua)

- oraiko "z": "g" bezala ixkribatzen zen (eitez a: g)

PATXI LASKARAI

ARGAZKILARIA

Zure argazkiak... Herri baten itxurak... Bizitzaren irudiak...

Jean Pier Soudre, Ixtilarteko semea

Senperen, Jan Pier Soudre edo "Larreko" (bere izen ordea) aipatzen delarik, iragan herriko azken 50 urte hauen biziaren bafadak hasten dira Senpertarren baitan altxatzen, zeren, asti pixka baten truke, bere ahotik jakiten ahal baitute nor ziren beren Senpertar aitaxi amatxiak, nola bizi ziren, zoin ziren beren historio latzak edo berdin irringarriak, beren nortasunak, beren arteko ahaidetasunak, nor nungoa zen, nork zer egin zuen, ots, Herriaren memoriaren oihala, begien aintzinean luze luzea zabaltzen diotelakotz, dohainik, Jan Pierrick, Senpertareri.

Ibarrun auzoa gora, Ahetzeko bidetik barnaxago: huna hemen Ixtilartea... Hor sortua da Jan Pier duela 75 urte eta sortu geroztik beti hor Ixtilartean bizi... Oraino hor, munduak duen eremu zabaletik, 12 Hektara lur tokatu

zitzazkion bere arbasoen gandik: lur urtsu bat dena patar eta zakarra. Aitameri laguntza ekartzeko, eskola utzirik (Komunione haundia egin eta...) gazte gaztea lotu zen laborantzari. Suertearen suertea, guttitik eskapatu da gela egitetik... bertze suerte on batez ere baliatu: ez baitu militar zerbitzurik egin, "Jinkoari esker" justu 1944 eko klasekoa izaiki eta...! Ezkondurik 1958 urtean, Saratar Kattin Iriartekin, 5 seme eta alaba badituzte bai eta 5 haur ttiki.

Galdetzen baduzue Jan Pierreri ean nundik duen bere pertsuen egiteko lehia, erranen dautzue, bere haur denboran, beti ukan zuela bere aita eta amaren eskutik parada irakurtzeko bai frantsez "La petite Gironde", "la Liberté" aldizkariak edo euskaraz "Euskalduna", "Gure Herria" eta bereziki urteko



Jean Pier Soudre, Ixtilartea etxearen aitzinean.

"Almanaka" famatua. lehen aldikotz, nola, Euskarazko Aldizkari huntan ohartu zen olerkietan, pertsuak

Pottokak eskapatu

Iragan Hazilean landan ari nintzen
Artoak bildu eta kuzkurren pikatzen,
Bi kuiatto xarmantak nintuen baztertzen
Jaunxkila xapeldun bat zelarik pasatzen.

Jaun hura hasi zautan erdaraz mintzatzen,
Agur-ta konplimentu baitzeraut hurbiltzen.
Kuiatto eder hetaz arras gustatu zen.
Zer ziren arraro hek baitzautan galdetzen.

Maltzurki erran nion: Mando arroltzeak,
Hoitarik sortzen dire pottoka gazteak.
Zaudezte berroi egun xitan jaun andreak,
Bi mila liberetan ditazke zureak.

Gauza arraro hetaz arras xoratuta,
Kuxean pagatzen daut nik erran muntanta.
Bere kuiattoekin jaun horren kontenta
Agurtu nuen bainan ez kenduz boneta.

Atsegin hartu zuen heltzean etxera,
Nekatua zen eta juan zen ohera.
Atxiki zuzten xitan nik erran denbora.
Halere ez zaioten pottokik atera.

Kolokak zitazkela ez hain alegera
Hor botatzen dituzte harroka behera.
Bi herbi haundi ziren sasitik atera.
"Hara gure pottokak juan dire han hara!"

Jauna eta andrea itzul eta bira
Hantxet gelditu ziren elgarri begira.
Ziotelarik: hemen egon behar gira
Gure pottokak hunat itzultzen badira.

Denboraren buruan juan ziren etxera.
Gomitatu ninduten: "zato afaltzera".
Juan nintzen heien penan han parte hartzera,
Neure gisan bainuen bihotza minbera.


Nahi nion itzuli sosa gibelera
Jauna egin tratuaz kontent zen sobera.
Neure diruarekin jin nintzen gibela.
Erranez: "gau on eta kontsola zitela.

Hiritarren bizia ez da hain agrados.
Gure gauza pizarrez maiz dire hek jelos
Kuiatto hek bezala baletzate eros
Laborari guziak zoin gintazken uros !

1957/O1/10 Jan Pier Soudre
"Nere Pertsuxkak" Liburutik

Urte guziz, hazilaren 11n ospakizunak gertatzen dire munduko lehen gerlaren armixtizarenkari. Dena dela, besta ote da ala Euskal Herria hustu duen gertakari latza?

Aldi huntako TTUPI-TTAPAN hazilaren 11ren ingurukoak aipatzea bururatu zaigu Senpereko historia hobekia-go ezagutzeko gisan. Iritzi eta sentimendu diferentak agertzen dire ondoko orrialdeetan...



DONOSTIAko Bertsolarien txapelketan bigarrena izan zen:


1. Basarri
2. Matxin
3. Zepai
4. Alkain

«GERLA HANDIA» (1914-1918)

- 1) Ene izpirituan hasten naiz pentsatzen
Gizonaren bizia zer ote zitaken
Egia ez da errex zuzen esplikatzen
Ainitzen justizia ez dut ezagutzen
Gu penaz higitzen
Elgarren xahutzen
Bat bertzea hiltzen
Odola ixurtzen
Aberatsak urrundik irriz asetzen (bis)
- 2) Mila bedatzi eunta hamalagarrena
Agoztuko ilaren lenengo eguna
Europako gerla bat hasi izan dena
Frantzian azkar ginen bazela zuzena
Legea emana
Denentzat berdina
Gerlako on dena
Biltzeko ordena
Baina eskapatzen da dirua duena (bis)
- 3) Partitu ginen beraz guziak herritik
Gure familietan penetan utzirik
Haur ttipi zonbaitekin andrea bakarrik
Gizona penatua hor ez da dudarik
Orduaz geroztik
Dabilenak xutik
Zerbait ikusten dik
Penaren partetik
Hilak bere konduak eginak ditik (bis)
- 4) Zonbait gizon alferren kaprizia gatik
Jende miserabliak hor pekatzen ditik
Ainitzek ez diagu ardit baten lurrik
Bertzenaren ontutzen gabiltzak bakarrik
Aberatsetarik
Ainitzak segurik
Urrun dituk sutik
Beldurraren gatik
Gu hemen hiltzen hoien manuen gatik (bis)
- 5) Izpiritu duenak errex du pentsatzen
Gure diferentzia zonbatekoa den
Haundiak ari dira ttipien manatzen
Pobrearen indarrez galonez altxatzen
Ohorez haunditzen
Miralez beztitzen
Diruaren biltzen
Intresen doblatzen
Gu horien manutik elgarren hiltzen (bis)
- 6) Gerla hunetan parte izatu duenak
Segur ezagutzen dik zer dituen penak
Gogoan baitituzte aita amen griñak
Bertze zonbaitek aldiz andre ta haurrenak
Lagun baduenak
Berak ere lanak
gau eta egunak
Irriskuan denak
Zer konda behar likek hiltzen ez denak (bis)
- 7) Zonbat amaren seme doloz haziak
Hemen uzten dituzte gaixoek biziak
Iñorantzia batez hunat etorriak
Hekien plazak dira nigarringarriak
Orobat erdiak
Beltzez estaliak
Odolez betiak
Iñozent trixtiak
Zonbait alferren gatik hoiek guziak (bis)

**Senpereko Matxin IRABOLA zenak eman bertsuak
H. Duhauk utziak**

Gehigarria



Euskal Kultur
Erakundearen
laguntzaz egindako
gehigarria

Senperen xorte bereko

Bertsu berri batzuen hasten naiz moldatzen Gure xorteko berri zueri kondatzen Hogoï'ta hamar gazte Senperetik ginen Erreforma pasatzen egun Uztaritzen Urrik'ogoita zortzi asteartea zen.

Karrosan firurikan joan ginen herritik Oihuka, irrintzinak, kantatuz hastetik Lili, xingol, bandera, edozoin aldetik Akordeona berriz poz bere xokotik Mundua harritua zagoen urrundik.

Sortzean bezalaxe xortean agertu Biluz-gorri emanik gaituzte ikertu Hogoï'ta hamar ginen guziak onartu Aintzindariak gaitu armetako hartu Nor giren Senper'tarrak han dira ohartu.

Gero zer gerta ere baiginen egarri Egun xurgaturen guk arno'ta edari Basoa eskuetan trinkatuz orori Zuen osagarrian erranez elgarri Ikus arte lagunak goraintzi deneri.

FUXTERO

Pierre Minaberrik emanak.

Jose SUSPERREGI,
Jaiberrikobordako

semea. Lau haurrideta-
rik bigarrena, Edouard,
Jose, Teresa, Gabi.

Ikasketak Uztaritzen egin zituen eta han Aita Lafittekin bertsoak moldatzen ikasi. Bere izenez izenpetzen zituen J.S. edo izen ordez, Fuxtero, Aitaxi... Hogeita bi urtetan joan zen Parisera eta han bizi da oraino, Senperera urtero bere itzulia eginez.



Behorlegiko etxeko jauna

Behorlegiko etxeko jauna, nolakoak ez hura denak Euskal Herrian kasik lehenak dion bezala omenak Guk baditugu emazte onak, seme alabak lerdanak Moltsa gari du, kanpo gizenak Nun dira holako gizonak.

Airea: BETTIRI UHARTEKOA

Pierrot Bordak kantatua.

Bertze aintz herrietan bezala Senperen antzerki, komedi, kabalkadak egiten ziren. Karia hortan emana izan zen bertso hau.

Olasoko Zubia

Olasoko zubixka zubi famatua
Aspaldi huntan gutaz igurikatua
Ez zen segur desira zuzen kontrakoa
Taula txar bat ginuen zubi ordekkoa.

Egun dut nik erranen lehen ez bezala
Gertakari bitxiak agertu direla
Pasatuko haizela zur horren gainean
Ez bahaiz aski fida sar hadi urean.

Zuk aldiz Dominixe uria zelarik
Eta urak zubia kendu zuelarik
Zer eginen ginuen salto ezin egin
Etxean ginen egon behin bada behin.

Bertze holako frango mintzatzen balaki
Zubiak sala liro nik baino hobeki
Olason parioka zubirik ez zela
Sekulan muntatuko ahantzi zutela.

Baina horiek hola jasanak jasanik
Zubia hasia da ez izan hobenik
Orai lehen bai lehen ahal baduzue
Hasi duzuen lana burura zazue.

Errekan doan urak zubia harrotu
Mahats jusak zenbaiti burua xoratu
Bainan zer inporta du berantaren gatik
Pasa ditaizke orain bai zubi gainetik.

Biba beraz Senpere'ta biba Olaso
Ixildu aintzinean hauxe dut errango
Senpereko gizonak direla luzakor
Jaun Goikoa bezala baina ez ahantzakor.

Herria irakurtu dut ganden astean
Matxinek zenbait bertsu lezazkela eman
Pretentziorik ez dut Matxin berdintzeko
Horra beraz zertako naizen ixilduko.

OLASOTARRIA

Pierre Minaberrik emanak.

Haranederrea Urkoi.

Norbaitek baleki nor den

Olasotarría?

Jakiteak eskertuko ginuke.

Belaun buru haundia -Senpereko-

Huna zer gertatu zitzaion Jean Barbier (1875-1931) luzaz Senperen erretor egon zenari (1913-1931 arte). Jakina da Garaztarrak dantzari arin eta finak direla eta bera Garaztarrak izanez bazuen Senpertarrentzat halako mespretxu aire bat bezala -Senpertarrak pixka bat pisuak zirelako beharbada-. Behin hiru Senpertar, bat bertzea bezain haundiak plaza beheretik goiti zoazin, urrats ederean. Apezetxearen aintzinean Barbier erretora kurutzatzen dute. «Hara Senpertar belaun buru haundiak» hunek. Arrapostua laster batek eman zion, Larretxeri-k hain zuzen:

«Zu Baxenafartar selaru arina
Dena ere xurxuri taulaz egina
Gutartean ez baduzu hartzen atsegina
Maleta hartu ta zoazi aintzina».

Geor LARRETXERI

Senpertar Bertsolaria.

Paxkal MENDIBOURE-k emanak.

OXTIKENEKOAK Kultur Elkartearen

DEIA

URTEKO

BILKUR NAGUSIA

Urtarrilaren 19an,

10:00etan

- 2001garren urteko lanen aipamena
- 2002garren urteko helburuak
- Kontuak
- Bulegoaren eraberritzea
- Ondotik hameketakoa.



Bazkal denboran, haurrek bazuten non josta.

Zaldubi ikastolaren 30garren urtekaria Ibarrunen

Lehendakariaren hitzaldia

Ongi etorri deneri!

Milesker haundi bat gure gana hurbildu zaizten guziei.

Zaldubi Ikastolak 30 urte betetzen ditu! Senpertar multxo baten nahia-ri esker ireki zen ikastola: beren haurrak –eskolan ere– euskaraz bizitzea nahi zuten.

30 urte hauetan ikastolara hurbildu garen guzien nahia izan da hori. Beraz, gaur ere gure eskerrik beroenak luzatzen ditugu ikastola eta bide beretik euskara lagundu, bizi arazi eta indartu duten buraso guziak;

Baina baitere, bide hortan gure ondoan izan diren erakasleak, laguntzaileak eta ororen gainetik ikasleak: zuek duzue zuen burasoen ametsa obratu:

EUSKARAZ IKASI ETA EUSKARAZ BIZI.

Bide hau luzea da, denek elkarrekin segi dezagun, gure hizkuntzari merexi duen tokia emaiten.

Beraz, gaur denak bazkari baten inguruan ongi goza gaitezen, ikastola eta euskararen alde!



Kristina Saint Martin
Zaldubi Ikastolako lehendakaria

Seaskako ordezkariaren hitzaldia

Egun on deneri!

Lehenik SEASKAko lehendakariak barkamenak galdetzen daukizue, ezin etorria baitzen gaur eta beraz federakuntza osoaren izenean Zaldubi Ikastolako buraso, irakasle, langile, lagun eta laguntzaile guziak eskertzen ditut nik ere.

Hogoita hamar urte beraz, presuna batzuen nahikeria eta dinamismoari esker ikastola hau bizi eta garatzen ari da.

Urte osoan zehar urtemuga hunen ospatzeko asmoa zoriontzekoa da. Federakuntzarentzat hain garrantzizkoa den herri

huntan, hemen iragaiten baita urte guziz Herri Urrats, besta eta kultur ekitaldi hauek erakusten dute Ikastolak herriko bizian duen engaiamendua.

Senpereko elkarte bizian eta politikan hartzen duen tokia, hautetsien, elkartearen eta ikastolaren partaidetzari esker lortzen du.

Hemen proiektuak elgarrekin eramaiteko atxeman dugun nahikeria azkar dadila eta bertze tokietara heda dadila gure hizkuntza bizi dadin.

**EUSKARAK
MEREZI DU.**

BULEGOKO

ALKIAK

eta burdinezko apalak


Frantziako estatuan, bulegoko eta kolektibitateko alkien lantegi garrantzitsuena

Lantegia, Hendaian kokatua, 240 langilerekin

SOKOA SA, 26 Pausu-ko karrika 64704 HENDAIA
Tel. (33)05 59 482 482 • Fax (33) 05 59 482 472 • e-mail: info@sokoa.com



SOKOA



Bide, leku, auzo eta erreka izenen berri eman digu Ixtilartek

“Atseginekin idatzi ditut dakizkidan
leku izen batzu, zubi edo erreka.”
Jan Pier Soudre “Ixtilarte”

Senpereko 5 auzo ezagunak hauek dira:
Amotz, Plaza, Ibarrun, Helbarrun, Olaso.
Lehengo denboretan, 5 hauek federazio
bat egiten zuten.

Hor dira ere: Karrikatxar, Ihintz, Urzuri,
Artzirin, Hergarai, Amezpetu, Ortzana,
Herburu.

Bortz kantoinak.

Olako kapera.

Uhaideko zubitik Ziburuko bordarako bi-
dea: Xerrenda.

Betrieneko zubitik Sararako bidea.

Zorri menttako erreka.

Okelar eskualdea, zubi berri.

Arotztegirat heldu aintzin: Ohoin xilo zu-
bia edo arotztegiko zubia.

Karrikarte: Ehaltze eta Aspeltze aldea:
Ortzan.

Ortzana: aintzira

Ortanzko erreka

Hangkok apera tokia: Ahurti, naski.

Infernuko erreka.

Katzotegiko gain hori?

Luluatik goiti: Akertegarai

Aztarrizteko kapera Helbarrun eskolatik

goiti: Serrese

Bastida agerrea gain hura? Basarrun (ba-
sajaun) iratze lekuak.

Han den etxe andana: Hostalapea?

Arbonako bidean: Orratzagako erreka,
handik hurbil, Harrizko zubia, zaldi fe-
rra, Kanttiago gaina.

Bertze zubi bat Iturbideko borda aintzin,
ez dakit izena.

Hôtel Bonnet: Ottoloinea.

Handik goiti: Ahuntz karrika.

Angelun Chambre d'amour baldin bada,

Senperen badugu:

Andre lekua: Iratzeko patarra

Andre leku zelaiak: Ondotik

Andre lekutako gaina: Iratzeko bordatik
aintzinat

Jarjieneko erreka

Sarroskiko zubia.

Zipateiko erreka

Bisosteiko erreka, Arotztegitik aintzina.

Lan hunek merezi du segida. Hartu zuen
lapitzak.



Euskal Herrian Euskarazen mobilizazio astea euskararen
ez-ofizialtasuna salatzen.

Matxinen bertsuak

**Huna Matxinek eman bi bertsu, hamalaue-
ko gerla ondoan Senpereko bikarioak an-
tolatu besta batean:**

Lau urte ta erdi ibili naiz gaixoa ni ere trantxetan
atsegin oberik baitzuten zagotzinek hiri hoitan
atsegin zombait nuen nik ere ai nintzenian ametsetan
iduri zautan hor nituela andria ta bi haurrak besoetan

Eskerrak bihurtzen diozkat Jaun bikarioari
horri esker baitgare egun besta huntara etorri
hori ere trantxetan egon da lau urte ta erdi
garraiatu ere ditu bizkarrian zombait zorri

Donostin, besta egun batez:

Bizkaia, Gipuzkoa, Alaba eta Nafarroa
Xuberoa, Baxenabarre, ni berriz Lapurterra
Zazpiak bat egin nahiz etorria naiz hunara
Kanta dezagun gora euskaldunak ta gora eskuara

**Amotzeko besta batez, Ganix oihantzaina-
rekin, hau senarra, Matxin andria:**

Matxin:

Ene senarra ibiltzen da aste oroz merkatuan
afera aintz baduela egin beharra tratuan
denbora aise pasatzen du lagunekin ostatuan
argi aldera erretiratzen sosak xahutu ondoan.

Ganix:

Ene andria agoiten da aginetikan minez
erremedio egiten du likur edari finez
agina guti goxaturik estomakari emanez
gero gaixoa hor agoiten da kakarik ezin eginez.

Hau ere ostatu batean:

Gure laguna aizana zauku arno edaten basoka
orai gaixua hor ari da edanarekin borroka
aintz estatu txarra du bainan nihori ezin mendeka
ipurdiak ere saldu eta ahotikan egin behar kaka.

**Jende ainitzek bezala Matxinek eskolik ez
zuen eta ez zakien idazten, ez irakurtzen ere.
Bertsutan entzun eta harrituak egoten zi-
ren asko, nundik ikasten zuen, ez libururik,
deus ere ez zuen eta. Berak erraten zuen za-
kizkien denak predikuatarik ikasten zitue-
la.**


Martxuka taldearen lanetik.



Ur Xuri

(Jan Pier Soudre Iztilarte)

- 1 Ur xuri gainean zoin den eder Senpere
Ogei ehun jendez goiti han bizi gare
Euskaldunak gare oraino alere segur nahi ere
Ta federik gabe, euskararik gabe Senperen deus ez gare
- 2 Lanoki heldu da Senpererat Urxuri
Diolarik agur Amotze ta Urguri
Olha, Olhasori eta Hergarairi, plaza guziari
Pasatzean Artzirin, gero Ibarruni, azkenik Helbarruni.
- 3 Plekariak ere betidanik badire
Theofil, Santiago, Sein ta Xabatene
Behaztegi erne, Audeten lau seme, Iratzoki berme
Ondotik bortz seme, Etxegarai barne, Borda ta Ottoloine.
- 4 Senperen izan da bertsolari ausarki
Jaun erretor zena, jaun kalonje Zaldubi
Ganix Donamarti Matxin bertsolari Georges Larretxeberri
Ohore deneri Lou kaskoin Laurenzi eta bertze ainitzi.



Mikelungo Auger
Ibarrak
kantatua

Airea:
Iduzkia denean zoin
den eder


Kaiolan nintzenian

1953an, Senpereko herriko bozetan bi listen arteko guduak zer errana sortu zuen kanpaina denboran. Huna hemen, Xalbador Yarzabal Senpertarrak zer zion:

- 1 Hemeretzi ehun pasatu eta berrogoi ta amairu
Apirilaren ogoi ta seia, sekulan orroitzeko
Gure herrian gertatu zaiku Gauza paregabeko
Lista eder bat dugu bozetan airez aire pasatuko.
- 2 Aspaldiko urte hautan zagon gure herria tristerik
Jende pobriek guk badakigu zombat dugun sofriturik
Behar orduak heldu zitzaizkun alderdi guzietarik
Eta merian ezin atxeman behar zen argitzalerik.
- 3 Funts gabekotan funts gabehenakziren gure gidariak
Buru zutena deus ez zen eta denak haren iduriak
Diru laguntzik ez zela behar ziren gogoan jarriak
Gutiz gehienak etxeko jaunakontasun onen jabeak.
- 4 Diru laguntzak antolatzen dubeti herrian jendea
Zerbait lan berri egitekotan guziendako obia
Gure herria memento huntan ez zen beharrik gabia
Jakinez geroz jaun haundi hoiki nola hiten den galdia
- 5 Beren gisan bazuten ueguilu, kutxa zutela azkarra
Hori da hiragan hainitz urtez egin duten lan bakarra
Bi miliun heina omen zuten hainitz gehiago beharra
Azirik ez bada ereiten maiz errekolta meharra.
- 6 Mekanizien eta ostaler, xanparter eta postako
Behar bezala emanak dira guziak ene gostuko
Gutiz gehienak laborariak traba guziak hausteko
Nihoren beldurrik ez dutenak lan berri bati lotzeko.
- 7 Egun hauetan gure herrian xaindamenduak badira
Herriko etxean kontseilua, eta elizan berriz klabera
Karitatea gure herrian ongi ospatzen ote da
Gauza guziak zuzenak dira alde onez hartzen bada
- 8 Gure hetsia hartu ondoan denak ezituak gare
Bat bertzeari agur egiten berriz hasiak baigare
Bildutasuna ainitz hobea elizarat joan eta ere
Memento batez hartzen ginuen tehatre haundi baten pare.
- 9 Azken bertsu hau nahi dut eman bihotza zabal zabala
Nere nahia gure jainkoak agian entzun dezala
Elgar maitatuz bizi gaitezen fedea dion bezala
Bake gozorik gure herrian ez da izanen bertzela.

Xalbador Yarzabal
Ibarrun Goietxea





Dios te Salve

- | | | |
|---|--|--|
| 1 Dios te salbe ongi etorri
Gau on Jainkoak diguela
Gau on Jainkoak diguela eta
Urte onean sar gaitzala. | 11 Itsasoan eder xalanta
Aintzin gibebez balanta
Etxe huntako etxeko andreak
Ze bular arte xarmanta. | 27 Urte zahar akabatzerat
Berrira goazen sartzerat
Nagusi jauna heldu gaitzazu
Urte on desiratzerat |
| 2 Ibilki gara gau xori
Urtetik urte xintxoki
Aurten ere zuen alaigarri
Hemen gaituzue Sanoki. | 12 Errekaldean lizarra
Zeru gainean izarra
Etxe huntako etxeko jaunak
Urre gorritz du bizarra. | 22 Etxe huntako nagusi jaunak
Badaki ongi lanean
Kapable baita irabazteko
Parisko tribunalean |
| 3 Hauxe da usaia galtzen
Dios te salbe kantatzen
nahi dugu piztu usaia hori
Bertzeek segi dezaten. | 13 Etxeko alaba ardita
Ederra eta pollita
Eri bat ere senda litake
Zuri begira jarrita. | 23 Etxe huntako zurubi
Maileak ditu hamabi
Etxe huntako etxeko alaba
Ama birjina iduri |
| 4 San Silbestrek igortzen gaitu
Izar eder bat gidari
Haren ohoretan ibil gaitezen
Gau eder huntan kantari. | 14 Milesker eman duenari
Eskerrak Jainko Jauneri
Ats egin duzue gure moltsari
Bihotzez urte on deneri. | 24 Etxe huntako etxeko andria
Aitu omen da deneri
Emanen duela mila libera
Kantari heldu denari |
| 5 Etxe huntako etxeko andria
Aitu omen da deneri
Emanen duela mila libera
Kantari heldu denari. | 15 Ate xokoan oilo bik
batek bertzea iduri
Etxe huntako etxeko andreak
Ama birjina du iduri. | 25 Hiru ta hiru sei dira
Bertze seiekin dotzena
Helduen urteko nahi nuke jakin
Haur ttipi hoi ena |
| 6 Dios te salbe bakalau jale
Zazpi eta lau hameka
Odolkirikan ez balinbada
Ibual zaukula lukainka. | 16 Etxe ondoan arroka
Hasen gainean karrosa
Etxe huntako etxeko alabak
iduri baitu larrosa. | 26 Zintzurretik egarria
Aspaldi zaut etorria
Hemendik hurbil da iturria
Bainan ez arno gorria |
| 7 Ematekotan emazu
Bertzenaz ezetz errazu
Ate hondoan hotzaz hiltzerat
Amak ez gaitu bidaldu. | 17 Zapata xuri papez
Zuria denian baterez
Etxe huntako mutil gazteak
Ilea urre kolorez. | 27 Zapata xuri papez
Uria denian baterez
Nagusi jauna erran gaitzazu
Sartu behar dugun ba ala ez |
| 8 Pareta goiti sagua
Haren ondolik gatua
Etxe huntako monedarekin
Ez diau beteko zakua. | 18 Senditzen zaitut senditzen
Ari zarala jeikitzen
Zapatattoak soinian eman-ta
Salaren gainean kurritzen. | 28 Pareta goiti sagua
Haren ondolik gatua
Etxe huntako monerarekin
Ez dihau beteko zakua |
| 9 Hiru ta hiru sei dira
Bertze seiekin dotzena
Helduen urteko nahi nuke jakin
Haur ttipi horren izena. | 19 Ematekotan emazu
edo bertzenaz errazu
zeren mendian elurra ari baitu
zangoak otzten zaizkigu. | |
| 10 Hasten naiz hasten kantatzen
Urte berriaren laudatzen
Etxe huntako nagusiari
Lizentzuaren galdatzen. | 20 Etxeko andre mondrongo
hik ez tun asko emango
hik emantako limosnarekin
ez tinau asko edango. | |

SANOKI (1-14)
IRASTORZA, Stefana (15-20)
LAZKANO, Jan Pier (21-28)

Txirritarenak

1999ko Oxtikeneko bazkarian Txirritaren bi bertsu agertu ziren: «Txirrita hil dela» Txistuk kantatua eta «Ijito jende hoi enak» Fifin Olandeikoak kantatua. Aurten, Inharrean, Txirritaren zein Xenpelarren kantuak Austeiko Gabik eta Frantxua Apezteiek kantatu zituzten buruz. Bertsu horiek Auspoa editorialak eta «Bertsotan 1789-1936» liburuak argitaratuak dituzte. Lehena Txirritarena, «Neska zahar bat tentatzen». Hamabi bertsu:

1 Dozena bat bertso
nahi nituzke jarri
jaietan kantatzeko
...

4 Ama preparatu zait
hasarrez betea
lehenbiziko oihua
«zenbat dik dotea
hainbeste kostataka
alaba maitea
lastima izango dek
hiri emaita».

Bigarrena, Xenpelarrena,
«Miseriaren adarra».

Hamalau bertsu dira:

1 Goizean diru kontatzen
tabernarako plantatzen
...

2 Ezkondu eta ezkongai
guziek ondo bizi nahi
...



Austeiko Gabi eta
Frantxua Apezteie

LAPURTARRAK IHESI

«Lapurarren deportazioak» liburutik

- 1/ Kantatzera nohazu nere arabera, segur naiz maluruski sujeta dudala. Ez dezagun pena hau har sobera barnera, elgar kontsolaturik gaiten alegera.
- 2/ Mila zortzi ehun eta hamairugarrena, eman zaukutenian Lapurdin ordena: etsaia heldu zela Frantzia barnera, ihes joaitia zela gure hoberena.
- 3/ Egun malurus hartaz oroitzen naiz ontsa, behar gabe eginik haren bertze trosta. Ofregi Jainkoari gure nigar hotsak, baldin ez baditugu harrizko bihotzak.
- 4/ Zori gaixtoz joan ginen guziak ihesi, hemengo sarraskiak ez nahiz ikusi. Utzi gintuen onak zituzten iretsi, heien faltaz bakotzak behar du miretsi.
- 5/ Partitu ginenian zoin gure herritik, batzu haurrak besotan, bertzeak ondolik, nigar egiten zuten gaixoez gogotik, inozentek sofrituz hobendunen gatik.
- 6/ Soldadoak gibelat zoazin erretretan, arrogatzen zituzten jendiak bidetan. Gintuenak ken eta zoazin lorietan, saildu onik ahal da tropa horietan!
- 7/ Arribatu ginenian leku arrotzetan, pietate gabeko jende zorrotzetan, gauak kanpuan emanez neguko hotzetan, biziak etsiturik hogoita bortzetan.
- 8/ Jende gogorak dire guretzat kaskoinak, eskualdun gaixoentzat ez hainitz kasta onak. Gure gustuz halere jan tuzte gauza onak, oiloak egosiz eta errerik gapoinak.
- 9/ Nere eskualdun lagun errogintuak, zoin gure lekutan ongi min-hartuak, Frantziako armadaz gare penatuak, eta Espainiakoaz arras finituak.
- 10/ Kantu haien emaile Martin Bidarteko, niri ere joan dautet zenbeit bitarteko. Gutizia izan dut haien emaitako, arrozina banuen egia erraiteko.

ERREPUBLIKANOENTZAT BESTA HAUNDIA

Ondoko bertsu hauek ongi laburbiltzen dute Iraultzak irabazi zuenean Senperen egin zen besta. (orotara badira 13 bertsu)

- 1 Senperen egin dute besta bat haundia
Deklaratzera noa, guziek guardia!
Jaunerretorak ditu oro gomiatu
Nazioneko besta dute ohoratu.
- 2 Ostatura sartzean etxeko jaunari;
Hox' erraiten diote, hox, fite, Betiri;
Gaur besta handi dugu, iguzu jatera,
Goan behar dugu gero guziek plazara.
- 3 Bazkaiteko denboran, bataz bertzeari
Oihu egiten zuten: Hire graziari!
Biba nazionea! Zioten gogotik,
Gaztetan ez dun orai gu bezalakorik
- 4 Gizon eta emazte dugun orok edan,
Basoak trinkaturik, omore onean,
Zoazte elgarrekin guziak bakean!
Besta akabatu zen hola arratsean!

zoin armatuz inguraturik. Miseriak eta eritasunek fite kondenatu zituzten ahu-lenak heriotzera.

Bakotzak bere aldi, letrak idatzi zituzten beren arrangurak herriko ordezkarietara edo administrarietara emaitako baina, Dithurbide sarako auzapezak bakarrik ukan zuen Pineten arrapostua: "*zure arrestitzearen arrazoinak distriteko zuzendaritzako taulan ageri dira. Aristrokata eta gizon lanjerosa bezala identifikatua zira, zuretzat dugun ideia hori ongi merexitua duzu*".

Hala, justifikazio jakinik gabe eta frogarik gabe eskualdun ainitz deportazioaren kondizione zailak bizitzera kondenatuak izan ziren.

Deportazioa nola bururatu zen

Pinet eta Cavaignac-ek Landesetako konplotetan aski odol ixuri zela pentsatu zutenean, sentimendu kalmee-tagoetara itzuli ziren. Orduan deliberatu zuten eliza ho-

rietan gaketuak ziren 640 euskaldunak, Peyrorhade, Pouillon, Akitze eta Vert-Rameau herrietan bizitzera behartzea. Herri horietatik ihesi joaten zirenak sei urterako preso sartzen zituzten. Halere, deportazio denborak finitzen ari ziren. 1794ko Buruilaren 30ean Baudot eta Garrau ordezkariak deliberatu zuten Uzartitzeko herritar oro etxera itzuliko zela, bakotxari bere ondasunak itzuliak izanen zitzaizkola, eta bertzenaz, pagatua izanen zela. Gainera, erabaki horiek bertze herrietan ere aplikatu behar ziren. Maluruski, oraino gertakari tristeak etorri ziren. Hala, Dithurbide eta Sarako bertze 38 notablek beren etxeak erdi-erreak eta hustuak, eta lurak esterilizatuak atxeman zituzten. Kalte horiek pagatzeko, 782.000 libera galdatu zuzkoten erresponsableer. Diru horren zentimorik ere ez zuten usaindu 1817 arte.



Joana Mendiburu



Ene semiak etzaitzela ostatuetan abusa

«Ene semiak etzaitzela ostatuetan abusa» diote aitek seme-
eri bi pertsutan. Semek erraiten diote beren ikusteko
manera, bertze bi bertsutan.

- 1 Ene semiak etzaitzela ostatuetan abusa;
Goiz erretiratzen den gizona maiz izanen duk urusa.
Gizonaren zoragarri duk mahats arno filusa...
Zonbeit aldiz prestatu zioiat mularik gabe karrosa!!
- 2 Menaiatuz on egiten dik gorputzian edariak.
Soberetan pasatuz geroz akabo gure fediak.
Mediku haundi batek bezala, nik erranen dut egia:
Gazte delarik inultitzen dik gizona deboxkeriak.
- 1 Nahi bezenbat menaiatuz deboxkeria hastigu.
Ostatuan guri orenak laster juaiten zaizkigu.
Gure Jinkuak ez daiku emaiten merezi dinbat gaztigu!
Gizon deboxak abusatzeko tiraka guti aski du.
- 2 Arnu edan pipa hartu gero burua xoratu.
Familian behar sosak ostatuan xahutu!
ure denboran hola eginak orai sakelan bazintu,
Jende artean bazinuke duzun adin bat kreditu.

BERGARA, Ganizon «Txistu»

Ganix Altzuet-en bertsu bat

Haren gazte denboran nesken segi joaiten zen eta be-
har ziren segitu etxeraino eta hori egiten ez zuena, ez
zabilen bide xuxenean. Hoberena hala zen. Bide luzean
ere oinez joaiten zen orduan, eta nola uda zen gure ber-
tsolaria egarritu zen. Etxekoek xingal aire bait zuten,
bertsu hau gogoratu zitzaion:

- 1 Partitu aintzinean bertsuno bat bakarrik
Zer desiro dudan nik lili hauen ganik
Bi-ra muxu inozent besarka harturik
Ez bada bihotzean pentsamendu gaixtorik
Ez da bekaturik, ez izan beldurrik.

Ganix Altzuet, berriki zendua den Anttonen aita zen.
Duela bi urte, Ttipi Ttapak elgarriketatuz zuen bere anaia
Pierre-kin xisteraren sotzeaz. Gizon maitagarria, hemendik
gure doluminak Donamartiko famili guziari.

BERGARA, Ganizon «Txistu»

Egun oroz

- 1 Egun oroz goizetan arratsetan
Beti nagozu pena doloretan
Ezin dezaket jan ez eta ere edan
Ez dakit zer dudan, gaitz haundi bat da ni baitan
Atakatzen nau bet-betan
Ni ez naiteke bizi gisa honetan.
- 2 Antxu gazte bilo hori ederra
Sar zaite, sar korralean barnera
Artaldian bada oi zure beharra
Turna zaite turna zure sortu lekura
Desiratzen dut nik hura
Zure ondoan ibili naiz ni ardura
- 3 Artzain ona badautzut ene jauna
Otoi zato, otoi, enegana
Errebelatu denak derautzua pena
Ez izan dudarik, oi antxu bilo urdina
Sorturen dela ordaina
Etzaitzela horrela xangrina.

Frantxua FAGOAGA «Apezteia»en ahotik.

Hunen bizimodua Senpere herrian

- 1 Hunen bizimodua Senpere herrian
Beti zurrut egiten sagardotegian
Broma eta kantua xeibrekerian
Handik ateratu arte ahal duen guzia.
- 2 Hunen ofizioa zapata egilea
Lan fina badauka abilidadea
Bainan lanerako da gogorik gabea
Pena hartzekoa da hunen infinidatea.
- 3 Lana egin baino lehen kobratu lehenbizik
Diru horiek hartu eta tabernara ihesi
Horiek gastatu arte, zoinek etxerazi
Bizkarra hautsitzea ez al du merezi.
- 4 Gosaltzeko behar ditu sei edo zazpi baso
Zoinek orduan honi lana egin asko
Edan korriente bainan pagatzea ahaztu
Hola tabernaria ezin aberastu.

Frantxua FAGOAGA «Apezteia»en ahotik.



Gehigarria

Euskaldun neska bat Bordelen

XX. mende huntan, milaka izan dira beren herria gazterik utzi duten euskaldunak, maizenik lana eskasagatik, kanpotik beste hainbertze etortzen zirelarik. Burasoek, etxeokoez zer kondizionetan, zer funtsetan bizi ziren jakin gabe. Senperen ere kanta-tzen ziren jakin gabean, Joanes Etxamendi zenaren bertsoak. Huna oraikoan osorik, Urkaiko Minaberriri esker, bederatzi bertsoak.

- 1 Pasaian izatu naiz doi-doi Frantzian Euskal Herri maitean zer alegrantzian Gogoetak bat badut gu denak bizian Kurrituz gabiltzala esperantzian.
- 2 Egun dudan suieta ez da irringarri zuzenerat joanez da deitoragarri Bordelen gertatu zaut kasu bat galgarri Neskentzat zenbait kobla nahi tut ezarri.
- 3 Baserritik neskatxak hirirat ihesi Euskal Herrian ere asko badoatzi Partitzean serioz ta gero goraintzi Ongi gordetzen dute nola diren bizi.
- 4 Bainan nik erranen dut ikusi dutana Bordeleko hirian neska euskalduna Bizitze berri bati han dago emana Mila liberarentzat egiten du lana.
- 5 Lan hori zer daiteken nik ez dut errango Zeren hirian baita holakoa frango Hamar manamendutan bat bada akabo Denbora joanago fedez ahulago.
- 6 Burasoek ez dute hanbat arrangura Berri onak dituzte ukaiten ardura Agerian den gauza eta hau segurra Plazer lizunetarik ez dago barura.
- 7 Euskal Herrin dakitan xokoño batean Ez du hori ikasi hak bizkitartean Ulerturen nauzue guziek agian Baionatik has eta Maulerat artean.
- 8 Familia onetik jalgitzen da segur Hango bizi moldeaz iduriz ez beldur Lehen etxe zaintzeko bazutzen lau zakur Bordelen ez baitute bada azki makur.
- 9 Adixkide maiteak izan zaizte ontsa Bertsuen ikasteko har zazue funtsa Kanbiatuko dela izan esperantza Galdeginez harentzat zeruko laguntza.

Joanes Etxamendi Buztintzekoa
1934-1971



Airea: Dama gazte
charmant bat.

Jako
Irubetagoienaren
ahotik, Urkoiko
Minaberriren
laguntzaz.


Urrezko Ezteiak

- 1 Aire xahar batean pertsu bat edo bi erraiteko Senperen orai zer den berri zoriondun eguna zaiote etorri Amotz Olandegiko Robert ta Fifini lara lara lara Robert ta Fifini.
- 2 Berroita hamar urte direla ezkondu Semeak ta alaba dituzte izatu. Lurrarekin borrokan hor dire aritu zeruko Jainko Jaunak lagunduko ditu lara lara lara lagunduko ditu.
- 3 Agian ainitz urtez Robert eta Fifin Jaunak dautzuetela: zorion, atsegin Osagarri bat ona, omorearekin, maiz maiza dezagula kanta elgarrekin lara lara lara kanta elgarrekin.



Jean Pierre
SOUDRE
Istilarterkoa

Eguntxo batez nere andria dantzan zabillan



Airea:
Andre Madalen

Bergara,
Ganix
(Txistulo)
eskainia


Andre hoientzat badugu beti zerbait errateko, nahiz horien beharra badugun: gure pertsulariarenak dantzan maiteago omen lana baino!

- 1 Eguntxo batez noiz esango dut igande illun nabarra, Neure andria dantzan zabillan begira ziagon Nafarra. Lan egitteko gogo txikia fandangolari azkarra, Negorri bertan han izan banintz hautsitzen nion bizkarra.

- 2 Nere andriak josten'ta plantxan, brodatzen ere badaki, Kozinaria nor nolakua lan guztietan egoki. Katilu salda arduarekin gorputza sano iduki; bere burua mantenitzen du senarra bañon hobeki.

- 3 Eskal burutik amildu eta beitaraino zuzen, Lendabiziko pentsatu nuen eltze tzarrenbat ote zen.

- Hanka bat zeukan Bitorian'ta bertzia berritz Londresen.
- 4 Uda partian aritzen ginen aita semiak labrantzan, Andria berriz ganberatikan tabernarako arrantzan. Neure buruaz arnegaturik Euskal Herritik jua nintzan; Horra umiak amaren faltan gaxuak nola dabilntzan.



Gazte nintzelarik

- 1 Gazte nintzelarik hamazazpi urtetan
Zoriongaitz dorpea zu maitaturikan
Orduz geroz ez dut oren on bat izan
Nigarrez hurtua lo egiteko plazan
Malerusagorik ez litaik e izan
- 2 Etsenplu bakar bat gazteriarri
Ez dela fidatzeko amodioari
Gaztetxo ginelarik aise egiten irri
Ez sobera maita posible ez den hari
Hori dela medio malerus bainaiz ni
- 3 Ez bainiz beldurrean jainko jaunarenean
Bizia gal nio gaur oren berean
Eta zonbait izar bi hitz hauen gainean
Pena eta xangrina neure bihotzean
Nahi ninduzun sartu bizirik lurpean
- 4 Jiten zautanean azken despedida
Gorputza lurrera arima zerura
Joanen naiz bientzat lekuaren hartzera
Gosatzen ez denean munduan plazera
Jainkoari ez zaio deusikan sobera.

FAGOAGA, Frantxo
«Apeztei»-en ahotikAirea:
Bizi naiz munduan

Kartak hiru, kartak lau

- 1 Kartak hiru, kartak lau
Kartak eman deraut hau
Hamairu izan eta
ezin galdu hamalau
Sakelan dutan diruarekin
ez naiz afalduren gaur
- 2 Utzak mutikoa utzak gogoia lainoki
Partitu gabe mundutik
Aditzea banian bainan
jokoak adarrak makurtik
Hik nekez irabazia
ostalerak eremanen-tik.

Antton
HIRUBETAGOIENA-
ren ahotik

Kaiolan nintzenian


- 1 Kaiolan nintzenian, banindago trixte
Kanpoko lagunetarar, bainuen siniste
Librotasuna ona, zela nuen uste, orai arte
Amets, amets, xoroa, hik egin nauk kalte
- 2 Neure tratatzailea, fidatu zitzautan
Aski zabalik atea, behin utzi zautan
Nahi nuena egin, nintzen ordu artan, lorietan
Lagunetarar laster, joan nintzen airetan
- 3 Gauaz beldur bizia, egunaz ikaran
Nun nahi irrixtatzen, sartzia segadan
Holakorik ez zautan, bururat kaiolan, nintzenian
Zoin gaizkiago naizen, hobeki ustian
- 4 Ni lehen usatua, lo trankil egiten
Huna orai berri bat, zer dutan aditzen
Gauaz ihizi batzuek direla ibiltzen, xori biltzen
Aztaparren artean dituztela hiltzen
- 5 Ene hegalak aski, luzatu orduko
Uda akabaturik, negua hasiko
Ez da berritz lehenik, uda etorriko, enetako
Izotz, elur, ormetan, nola naiz biziko
- 6 Ene hegalak oraino, ditut laburregi
Nik nola ihes egin, belatz gaxtoari
Berteak bezin airos, nola naite segi, laguneri
Zer lana eman dutan nere buruari
- 7 Gazteak nahi badu, egon segurrean
Ez dadiela eror, nik egin utsean
Baina asmu hoberik harturik buruan, deskantsuan
Egon bedi kaiolan ongi zerratuan.

«Ambroxio Sempelar» eta «Koxe Larrun» bertsuak.



Olandeiko Fifin eta Laxkanoren ahotik

Gehigarria



Euskal Kultur
Erakundearen
laguntzaz egindako
gehigarria

Bardako ametsa

Aurten 75 urte bete ditu Larrungo trenbideak. Orduko bertsuak dira. Harrigarria baldin bada ere, hor finkatzen dira Sara herriko bi diru iturri nasaia, ugariak: Larrungo trenbidea eta Lezeak.

Airea: Kattalin, ttuku ttuku.

Kattin **SOUDRE IRIARTE**ren ahotik, bere amari ikasiak.

- | | |
|---|--|
| 1 Larrunen arratsaldian izatu ondoan
Ametsetan ibili naiz, han bertze munduan
Gauaz lo nagolarik deskantsu onean
Ametsetan zeruan eta infernuan. | 5 Gero lezeaz ere nakote mintzatu
Kanpotarra nola den horrat abiatu
Jaun kastillak duela guzia beretu
Ustez hor behar duen orai aberastu. |
| 2 Solasean egon naiz han saratarrekin
Aspaldi harat juanak ziren arimekin.
Atsegin zuten ni han ikustearrekin
Denek nahiz hemengo berriak han jakin. | 6 Erran diotet horrat otomobiletan
Heldu dela jendea egun beroetan
Ongi goxo baita bai leze barne hortan
Berotzen duelarik bertze tokietan. |
| 3 Erran diotet nola laister izanen den
Burdin bide berri bat egina Larrunen
Mendian gora dela karrosa iganen
Zaldirik gabe denak airos eremanen. | 7 Suzko karrusa hura, zer zen ez zakiten
Holakorik ez baitzen ez lehen ikusten
Denak nere berriek zituzten harrizten
Ikusteaz mundua hola kanbiatzen. |
| 4 Kontrabandistak, guardak bai eta artzainak
Loriatuak hemen dagotzila denak
Larrungo karrosa ikusi nahiak
Hortan egiteko hor beren itzuliak. | 8 Hortan akabatu da nere amets ona
Airoski ibilirik edoietan barna
Zaldi ta karrosarik izan ez diona
Ibil dadila hola ahalik maizena. |

Egurra nuen Tonbako errekan

Sara usoteiko errekarri tonbako erreka deitzen zaio. Egur lotak toki hortan egitea, beldurgarria dela erran daiteke. Bertsu gehiago ere badira. Dakizkienak helaraz ditzala.


- Egurra nuen tonbako errekan
Gosta zitzaidan haren emaitza orgetan
Urka ere hautsi nuen errekan
Sokaz loturik ekarri nuen errestan.
- Neure egurra haltza eta haitza zen
Gosta zitzaidan karga eskurat ekartzen
Barnetik ere oinutz triste bainitzen
Andrea penetan ustez oihanean hil nitzen.
- Laguna nuen Lekunberriko Piarres
...
Haren andrea urrats guzian negarrez
Non ote zuen bere maitea Piarres.

Urki zelaiko punta

Sarako bestetako usaia zen zikiroa jatea. Urte hartan artzain batek bat eskaini zuen, bainan hara nun bere auzokoari ere bat faltatzen zaion. Elgar atxemaiten dira Larrungo mazeletan. "Errak, hik ebatsi nauk ardia...". Hona hemen bertsa.

- Urki zelaiko punta Bautista haundia
Amets bat eskuetan pikatu berria
Aitortzen ez banakon han bertan egia
Nik ebatsi niola bestako ardia
Hautsitzten ninduela buruaren erdia.

Duela 67 urte bete aitatxiri entzuna. Bertze hamar bat bertsu badira oraino. Dakizkienak helaraz ditzala. Ez zen kolpekarik izan, Sarako bestetako zikiroa ez baitzen ebatsia.



Airea: Andre Madalen
Bergara, Ganizon
«Txistulo» eskainia

Oi eper zango gorria

- Oi eper zango gorria airean joailea propia
Ez duzuia bada pena neuri hola ikustea
Otoi otoi har nezazu utzirikan bertzea.
- Nunnahi joan dadin neure bihotza zurekin
Plazerrikan ez dut hartzen neure lagun gazteekin
Nun ez zaitudan zu ikusten zure begi ederrakin.

1939 urte inguruan izanen zen. Ibarron eskolan entzun zituen bi errefuxiatu hola kantari: (Airea: Antero Txaparotian)

- Francoren xaparrotian
Queiporen bigotian
Hoiek eman gaituzte preso ugarian

Franco batto, Hitler bestea, hirugarrena Queipo
Horiek dira destinatuak hiruk infernurako
La, la, la, la...

Eri naiz bihotzetik

- Eria naiz bihotzetik zombait urte huntan
Gauaz eta egunaz erreberrietan
Erremediorikan ez botikarikan
Negarrez urtzera noa pena xangrinetan.
- Partitzen baldin bazira maitea mundutik
Ez zare aterako neure bihotzetik
Laster hilen naizela ez daukat dudarik
Bihotza urtzen ari zaut zure xangrinekin.
- Gauza izigarria bihotzeko mina
Eta partikularzki amodio fina
Gorputza ia galdua lanjerean arima
Urrikal zaitetz nitaz oi ama birjina.
- Kantu hauk eman ditut neure buruari
Zeren baitu bihotzean ainitz sofrikari
Adio sekulako maite nuen hari
Gorputza lurrera eta arima jaingoari.

BIDAXUN zenak emanak.
Pettan ELORGaren ama zenari eskainiak.



Frantxua FAGOAGA
«Apeztei»

tan ibiltzen zituztela. Neskatxek behar zioten, jateko, zerbait on prestatu mutikoeri, urteberri aratsaldeko, eta orduan libro ziren. Berdin Trufania bezperan, neskatxek gauza bera egiten zuten mutikoeri eta biharamunean aratsaldekoa mutikoek prestatua jaten zuten elgarrekin eta kitto!

Urteko lehen hamabi egunak zotalak ziren

Gure aintzinekoen sinesmenen arabera, jakiteko zer eguraldi edo denbora egingen zuen urte osoan, urteko lehen 12 egunak "zotalak" ziren, erran nahi baitu suertearen arabera. Urteberri eguna nolakoa eta urtarrila halakoa, urtarrilaren 2a nolakoa eta Otsaila halakoa eta abar...

Zerbait, gure Urteberriko ohidura herrikoietaz erran behar eta, bakotzak bere norberaren arabera, ba luke segur hameka gogoeta desberdin egiteko. Nerretzat iduritzen zaut, 2000 garren urtean sartzeko puntuan, denak ziuztan hain lasterrez eta abiadura haundian dohalarik gure mundu deitzen dugun "zibilizatu" huntan, "errokerietarat" (jende eta erresuma haundien konpetizio itsuak, batzuen diruaren nagusitasun neurrigabekoa, bertze ainitzen miseri etengabea eta abar...) ez erortzeko gehixago, beraz "errokeri" hoietarat, iduritzen zaut, behar dugula, so egin gibelerat eta berritz lotu gure erro edo sustraiak zuten, natural bizi-izerdiari. Hori: gure izpiritua lasaitzeko, bai eta nunbait, gizaki gisa, gure burua, mundu paregabeko huntan aurkitzeko.



1999. urteko Urtats gaua Oxtikenean.

DIOS TE SALBE

Hemen ezartzen ditugun koplak, Sanoki elkartekoek, herritarreri bildu ondoren, jazko Urteberri, etxez etxe, kantatatu dituztenak dira. Oraino pentsatzen da bertze asko koplak balitezkeela askoren memorio xokotan. Otoi igor horiek Oxtikenerat. Plazer haundienarekin argitaratuko ditugu Ttipi-Ttapa aldizkarian.

Errepika

Dios te salbe ongi etorri
Gau on Jainkoak diguela
Gau on Jainkoak diguela eta
Urte onean sar gaitzala.

Ibilki gara gau xori
Urtetik urte xintxoki
Aurten ere zuen alaiarri
Hemen gaitutzue Sanoki

Hauxe da usaia galtzen
Dios te salbe kantatzen
Nahi dugu piztu usaia hori
Bertzeek segi dezaten.

(aintzineko bi koplak hauk Sanoki elkartekoek eginak dira, eta segidakoak popularak edo herrikoiak)

San Silbestrek igortzen gaitu
Izar eder bat gidari
Haren ohoretan ibil gaitzen
Gau eder huntan kantari.

Etxe huntako etxeko andria
Aitu omen da deneri
Emanen duela mila libera
Kantari heldu denari.

Dios te salbe bakalau jale
Zazpi eta lau hameka
Odolkirikan ez balinbada
Ibual zaukula lukainka.

Ematekotan emazu
Bertzenaz ezetz errazu
Ate ondoan hotzat hiltzerat
Amak ez gaitu bidaldu.

Pareta goiti saga
Haren ondolik gatua
Etxe huntako monedarekin
Ez diau beteko zakua.

Hiru ta hiru sei dira
Bertze seiekin dotzena
Helduen urteko nahi nuke jakin
Haur ttipi horren izena.

Hasten naiz hasten kantatzen
Urte berriaren laudatzen
Etxe huntako nagusiari
Lizentzuaren galdatzen.

Itsasoan eder xalanta
Aintzin giblez balanta
Etxe huntako etxeko andreak
Ze bular arte xarmanta.


Errekaldean lizarra
Zeru gainean izarra
Etxe huntako etxeko jaunak
Urre gorritz du bizarra.

Etxeko alaba arditia
Ederra ta pollita
Eri bat ere senda liteke
Zure begira jarrita.

Milesker eman duenari
Eskerrak Jainko Jaunari
Ats egin duzue gure moltsari
Bihotzez urte on deneri.



Gehigarria



Euskal Kultur
Erakundearen
laguntzaz egindako
gehigarria

Euskal gizaki mitologiko onak eta txarrak bazirela jakina da:

- Onak hauek ziren: laminak, basajaun, akerbeltz
- txarrak aldiz: Aire gaixto, inguma...

Azken honek gauaz lotan jendeak itotzen zituen.

Urruntzeko, Senperen eta Saran, duela 50 urte oraino gisa huntan otoitz egiten zen: otoitz mitolo-

giaz eta krixtautasunez nahasia, aitaxi amatxiri entzun duguna.

*Inguma ez nauk hire beldur
Jainkoa, Andre Maria
Hartzen diat lagun
Zeruan izar
Lurrean belar
Kostan are
Hek guziak kondatu arte
Ez hadila ene banat ager.*

"Dios te salve" segida

- | | |
|---|---|
| 1 Erreka aldian lizarra
Zeru aldian izarra
Etxe huntako etxeko jaunak
Urre gorritz du bizarra. | 5 Senditzen zaitut senditzen
Ari zarala jeikitzen
Zapatattoak soinian eman-ta
Salaren gainean kurritzen. |
| 2 Ate xokoan oilo bik
batek bertzea iduri
Etxe huntako etxeko andreak
Ama birjina du iduri. | 6 Ematekotan emazu
edo bertzenaz errazu
zeren mendian elurra ari baitu
zangoak otzten zaizkigu. |
| 3 Etxe ondoan arroka
Haren gainean karrosa
Etxe huntako etxeko alabak
iduri baitu larrosa. | 7 Etxeko andre mondrongo
hik ez tun asko emango
hik emantako limosnarekin
ez tinau asko edango. |
| 4 Zapata xuri papez
Zuria denian baterez
Etxe huntako mutil gazteak
Ilea urre kolorez. | |

Estefana IRASTORZA
Xabola Agerrea
HENDAIA

Haundizki kolpatua bihotzean dut min

- | | |
|--|--|
| 1 Haundizki kolpatua
bihotzean dut min
Penetan jarria naiz
izanik atsegin
Maite bat bihotzean
sartu zautan behin
Tronpaturik utzi nau
segida batekin. | 3 Igande arratsalde
berdin arratsetan
Maitea neuregana
heldu zen frangotan
Ez aspaldi oraino
burasoen bixtan
Ezkonduko ginela
hitzemana zautan. |
| 2 Adin ederrean
hemeretzi urte
Munduko penetan dut
hartu behar parte
Uros ta alegera
nintzen orai arte
Uste nuen betikotz
ninduela maite. | 4 Bihotzez otoitzen dut
zeruko jaun ona
Eman dezadan otoi
neri osasuna
Ohorezki hazteko
jin beharra dena
Aitarik ez izanez
maite dezan amak. |

Bertze edozein herritan gertatzen zena ARRUNTZEN gertatua
FAGOAGA Frantxua, «Apeztei»-en ahotik

Haur batek amentsetarik
erran daut


- 1 Aments batean sartu izan naiz haurño baten erresuman
Zoin ederra zen erakustea irri batez daut hitzeman
Erran daut ere: «Atea hemen nun nola duzu hatxeman
Ene bihotzak daukan gakoa zoin aingeruk dauzu eman.
- 2 Gizona, zure begiak dira nereak baino gorago
Ezin dituzu ikusi ahal lurpetik jin gauza frango
Zure bizia lanbro batean beti airean badago
Nerea aldiz garbi ta xume egiari hurbilago.
- 3 Aurrean dagon lore politak erakusten du bizia
Maitasunaren mezulari da Bakezko urtxo ezbia
Usain goxoez gantzutua da kolore askoz bezbia
Aita hazlea zeruko hura, Ama aldiz iguzkia.
- 4 Zoin maite dutan sasuen petik kantuz ari den xoria
Errexiñola, papo gorria, xoxo beltz moko horia,
Atzo batek daut goraki erran, neretzat, oi, zer loria!
«Zuri agur bat egin nezadan haizeak nau igorria».
- 5 Anaiari tut oñoñak eman, pilotak eman zezala
Hari begira jarri bainintzan, amultsuki berehala
Biribila da, guziz polita, xuri xuria azala
Bainan ez dakit hark maite nauen nik maite dutan bezala.
- 6 Haitz bat ederra, guziz azkarra, ikusia dut auzoan
Ezku ttipiak gora zituen elgarri irriz kaskoan,
Zenbait lurrean nigar handitan, haitzaren ondorat joan.
Nahi baitzuten goxoki egon beren amaren altzoan.
- 7 Arbola, xori, ostu ta lore, guziak ditut maitatzen
Horiekilan solastatzen naiz, horiekilan jostatzen.
Ez dute hoiek samurgoarik, bakea dute bilatzen
Eta hargatik, gizon gaixtoak ari dira denen hiltzen.
- 8 Haur horrekilan egon bainintzan, bozkarioz amentsetan
Atzarri eta trixtatu nintzen, nigar asko begietan
Aments hau nuen: «Haurtasun hori sort baledi gizonetan
Ez zaitekela hoinbertze herra gure mundu trixte huntan».
- 9 Apirilaren iduria da gizonen gaztetasuna
Askatasuna berakin dauka, gainera edertasuna
Gazte maitea estima zazu, zutan duzun ontasuna
Zoin ederra den ikusi gabe iragan behar zaitzuna.



Airea:
Kaseta huntan agertzen dira bertsu berriak
noistenka

Jako IRUBETAGOIENAren ahotik

Gehigarria



Euskal Kultur
Erakundearen
laguntzaz egindako
gehigarria

Laborarien kantuak

- Mila pasata bederatzia ehun hogeitasei urte da salbatzailea etorri zela bekatarien artera sendimenduak bertsu berritan orai noa erratera geroztik huna jende gaixtoen arraza galdu ote da.
- Lehen hemeretzi pasatu dira hau hogeigarren mendea aunitzek diote norat goaz gaixtotua da jendea egiak ditut publikatuko gezurra balitz hobea neronek lehenbizi urrikari dut langile miserablea.
- Mundu hau balitz zabalagoa halere gehiago galde desira dugu neke gutirekin gauza guzia debalde gure tartera heldu ez bada gaitz gaixto eta uholde nahi eza ez oraindikelgarrentzat hasi beharrak gerade.
- Kapitaliztak dira gradutan jende pobrea soldadu partikulazki laborariak kontrario sobra du aberats puxant errege haundi dutenak hoinbertze gradu denak goseak hil behar dute lurak emaiten ez badu.
- Gure Jainkoak zabaldu zuen oihal ederra hau da lurra eta berritz ere baluke lana zuzentzekotan makurra fede onean bizi garenak jende gaixtoen beldurra egiak ez du gehiago balio nausitua da gezurra.
- Adinak, gaitzak eta aizkorak bakandu ditu oihanak horiek guretzat utzi zituzten orain mundutik joanak gure aldetik landa ditzagun ondokoentzat ordainak hori egiten ez bada gure semeek zer lana.
- Belar bezain usu atera zaizkigu etxe berriak ertxi ta labor altura guti iduri xori kafiak horietan nahi ta ez bizi beharko duten familia tikiak horra zer gisaz apaindu diren Euskal Herriko tokiak.



Olandeiko
Finen
eskutik

Armorako Maixani eskainiak

Senperen Gaxinabordan sortua Ziburun bizi den J.B. Tapiaren ahotik

Airea: «Saratarra naizela»

- Ezkontzeko hasia hau da desgrazia (bis) muthil faltsuarekin tratatzen hasia Ni fida nintzen baino haren malezia horrengatikan nago bazterrera utzia publikatzera noa afera guzia.
- Mutil kuriosa alto ta gizona (bis) ikustera jiten zautan ahal zuen maizena ni ere haren etxean bietan izana geroztik urrikitan egoiten naizena ez bainuen uste zela holako gizona.
- Errematismoarekin eri naiz egotu (bis) orduan ikustera ez zautan agertu Erietara goizik behar zuela sartu sinesten nihozkan eta aise nau tronpatu nere bihotz gaixoa daut gogor kolpatu.

Muntra eta erreztuna
linga eta baxera
arno eta azukre
jaunari eskerra
gostairik genituen
bilduak etxera.

...
...


12 bertsu zituen kantu honek, J.B. Tapiak buruz eta gogo onez eskaini dizkigu lau hauek.



Bertze kantu bat burutu gabe

Gau ilun batez uste gabean lo zagolarik bere ohantzean Arrano bati lotu zitzaizkon berrehun bele batean gosta zaiote ezin haurdikiz hoinbertze etsai bertzen artean hegal bat ere kendurik utzi halere dabil airean.

Eskas diren bertsuak, dakienak igor ditzala ttipi-ttapa edo berdin Oxtikenearat



Sukar malina

- 1 Agur zu ene maitea iduzki eder begia
zure gantikan nik utzi niro bizi naizen herria
Eta aldera zure ganatzen, izar xarmegarria.
- 2 Mintzo zira ederki ederki eta oneski
Zureganik nahi nuke jakindu nik bereziki
Noiz izanen naizen zuretzat izar edo iduzki.
- 3 Zazpi urte ia baditu uda honetan konplitu
Amodio perfek batez zintudala maitatu
Bainan orai ni beldur nauzu zu zaren kanbiatu.
- 4 Eri nuzu bihotzez erraiten dizut bi hitzez
Sukar malinak harturik nago zu ez izaita beldurrez
Otoi otoi har nezazu, hil ez nadin xangrinez.
- 5 Gaitz ororen kontrako erremedioak badire
Sukar malina baldin baduzu zerbitza zaite barberez
Eta ez neregana jin ni mediku beharrez.
- 6 Urre-erretuna badut nik bere ederrez harturik
Hura ikusi arteraino zure errian sarturik
Ene bihotzak ez du izanen oren bat deskantsurik.
- 7 Ur-erretuna baduzu, bertze norbaiti emozu
Neure errian sarturik segur ikusiren ez duzu
Bertze zonbeit ahal duzunez entseia hobe duzu.
- 8 Oi eper zango gorria airean joaile propia
Lehen bertekin ibili, bainan orain neuri guardian
Zoaz begien bixtatik parabolaz betea.
- 9 Noranahi joan nadin ene bihotza zurekin.
Nihon ez dut plazerik hartzen ene gazte lagunekin,
Non etzaitudan ikusten zure begi ederrekin!
- 10 Arrosak eder botia, edertxago du loria
Lehen bertzetan ibili eta orai neri gorthia
Zoazkit begien bixtatik parabolaz bethia.

Benane ZAMORA-ren ahotik
Frantxua LAZKUBERi ikasiak



Aspaldiko denboretan gauaz eta beti

- 1 Aspaldiko denboretan gauaz eta beti
Ihizin ibiltzen nintzen uso pollit bati
Azkenean atxeman dut; oi! bainan trixteki
Lumarikan ederrena baitzaio erori.
- 2 Supazterrean zoin den eder suburdina letoinez
Xarmegarria erradazu maite nuzun ala ez
Baietz ere ezin erran, etxekoen beldurrez
Ezetz are gutiago, zure begien ahalgez.
- 3 Maiatzean zoin den eder leihotik kanpora
Zeren orduan baita lilien denbora
Bati begiratzen diot maiz eta ardura
Gortiarene egitea ez naiteke mentura.
- 4 Gortiarene egiteko ez izan herabe,
baldin amodiorik balin bauzu batere
Izanak eta galeak jendetan badire
Ene bihotzak ez du zu bertzerik maite.

Frantxua FAGOAGA «Apezteien» ahotik.

Euskal Herritik huna jinik

- 1 Euskal Herritik huna jinik hemen bagirade ainitz
Haurridetarik orotarik malurusena ni bainaiz
Bertze koblarik emanio ni Herrian orain banitz (bis).
- 2 Aita amak nigarretan beren haurrez doloretan
Plazer onik ez daiteke orai denbora huntan
Horiek oro jasan daizke jaun onaren ohoretan (bis).
- 3 Adios ait-ama anai arrebak bizi zaitezte trunkilki
Presuna gazteak behar dik denbora nonbeit ibili
Ibiltzen denak badaki pena plazerraren berri (bis).
- 4 Ni sortzeko egunetan gauza frango bazterretan
Arribatu nintzenean munduko portaliatan
Miseria arribatu zaldiz zela bridetan (bis).
- 5 Nik maiteari igorri letra batean goraintzi
Bizi dadien trunkilki jinen nintzela laburzki
Hura gogoan nagolarik oren guzietan beti (bis).
- 6 Izan banu eskolarik izkiriatzen molderik
Engoitik izanen nitzen ederki aberasturik
Miseria kitatutik andre eder bat harturik (bis).

Olandeiko Fifin-en ahotik